

## **0ZUMAIAKO UDALA**

## **GIPUZKOAKO PROBINTZIA**

### **2004KO UZTAILAREN HOGEITABIAN UDAL PLENOAK EGINDAKO EZOHIZKO BATZARRALDIKO AKTA.-**

Zumaiako hirian, bi mila eta laugarren urteko uztailaren hogeitabian, arratsaldeko zortzi terdietan, Udaletxe honetako Biltzar Aretoan, Udal Plenoa eratu da ezohizko batzarraldia egiteko asmoz, aurrez izendatutako eguneko aztergaiari jarraituz. Eta garaiz eta eraonez deituak izan zirelarik, ondorenean aipatzen diren udal bazkideak etorri ziren:

### **LEHENDAKARITZA.-**

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA Anderea.

### **ZINEGOTZIAK.-**

Asier ESNAL ALBIZU Jauna.  
Manuel ZUBIA ARTABE Jauna.  
Lide AMILIBIA BERGARETXE Anderea.  
Mikel OLAIZOLA ELOSUA Jauna.  
Andoni ETXANIZ OSA Jauna.  
Joseba Josu ASPIAZU AZKARRAGA Jauna.  
Mikel GARATE GOLMAIO Jauna.  
Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA Jauna.  
Abel YEREGUI SASIAIN Jauna.  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ Jauna.  
Paloma HEREDERO NEGREDO Anderea.  
Cristina FORCADA UNANUE Anderea.

### **IDAZKARIA.-**

Miren ETXEZARRETA GARMENDIA.

Bilerara herritarrak agertu dira.

### **1.- MOZIOA : ERRAUSKAILUA**

Alkateak bilkura eratutzat eman ondoren, IZUSTARRI Taldeko bozemaileari luzatzen dio hitza.

IZUSTARRIk zera dio, IZUSTARRI eta EZKER BATUKO zinegotziek ez ohiko Osoko Bilkura deitzeko eskaera, Udaleko Alkateari zuzendu genionean, uztailearen 19-a baino lehen egin zedin azpimarratzen genuela, errauskailuaren kokagunea erabaki aurretik, baina ez da horrela izan.

Mozioren textua irakurtzen du:

## **HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK**

Bi urte baino gehiago behar izan dira Gipuzkoako Hiri Hondakinen Plana egiteko. Azkenean, zortzi Mankomunitatek, zenbait teknikari adituk eta alderdi politiko gehienek onartu egin dute Errausketa dela zaborrentzako konponbiderik onena.

Zenbat errauskailu eta non, hori besterik ez zen geratzen erabakitzeke eta hori uztailean erabakiko du Foru Aldundiak. Behin eta berri esaten digute errausketak energia-balorazioa dela; errauskailuek ez dutela poluitzen; dioxinak, furanoak eta metal astunak iragazkien bidez jasotzen direla; tximiniak kontrolatu egiten direla; konposta ez dela konponbidea eta abar.

Gero eta jende gehiagok, gero eta talde gehiagok, ordea, uste dugu posible dela beste mundu bat. Izan ere, merkatu kapitalista globalizatuaren oinarriak, neurri handi batean, plastikozko ontziak dira, mugaz gaindi eta nahi duten lekuetan ekoizten duten enpresak, lan- baldintza kaskarrenak eskaintzen dituztenak.

Gure munduko baliabideak mugatuak dira eta errausketa kontrolik gabeko kontsumo-dinamikaren zati bat baino ez da. Errausketak muga jakin bat duten era guztietako materialak kontsumitzen ditu, baita birziklatu edo berriz ere erabil daitezkeen materialak ere. Errauskailuak gero eta zabor gehiago behar izaten du are errentagarriagoa izateko, eta ez dator bat beste tratamenduen aldeko apustuarekin. Errausketak gero eta zabor gehiago behar du, gero eta merkataritza-gune gehiago, erabili eta botatzen diren gero eta produktu gehiago, gero eta ontzi gehiago. Dinamika honek mugarik gabeko kontsumoa dakar, ekologia aldetik iraunkorra ez den kontsumoa, baina ekonomia aldetik errentagarria dena.

Badaukagu beste mundu bat egitea, baita hondakinekin beste politika bat ere. Badaude konponbideak; besteak beste, zaborrak murriztea, hondakinak lehengaitzat hartu eta berriz ere erabiltzea, konposta egitea, biometanizazioa, bigarren mailako hondakindegia, erabilera bakarreko ontziak debekatzea, kontsumo-ondasun iraunkorren alde egitea...

## **MOZIOA**

1. Zumaiako Udala eta alkatea errauskailuen aurka azaltzen da, edozein lekutan eginda ere (bai Arroan eginez gero, baita beste edozein lekutan bada ere).
2. Foru Aldundia laster errauskailuen inguruko erabakia hartzekoa da, eta litekeena da gure eskualdean ezartzea. Zumaiako Udalak eskatzen dio erabaki horiek bertan behera uzteko.
3. Zumaiako Udalak nahi du gizarte-eztabaida zabalagoa hastea, herritar guztiek aukera izan dezaten errausketaren inguruko informazio eta iritzi guztiak ezagutzeko, eztabaidatzeko, egiaztatzeko eta ondorioak baloratzeko.

Zumaian, 2004ko uztailaren 13an

## **IZUSTARRI eta EZKER BATUA**

Irakurketa amaitu ondoren, Alkateak aurkeztutako mozioaren euskarazko eta gaztelerazko testuak lehenengo puntu bezala izendatzen denean ez datozela bat dio.

Gaztelerazkoan, Zumaiako Udala errauskailuaren eraikuntzaren aurka agertzearen erabakia har dezala eskatzen da.

Euskarazko testuak aldiz, Zumaiako Udalez gain Alkatea bera ere errauskailuaren aurka azaltzeko eskatzen du.

Onarpenera zein bertsio luzatzen den galdetzen du, kontuan izanik ez dutela gauza bera eskatzen.

IZUSTARRI-k, onarpenera aurkeztzen den testua euskarazkoa dela dio.

Alkateak orduan Idazkariari zera galdetzen dio, mozioak Osoko bilkuraren onarpena jasoko balu, nahiz eta Alkateak alde ez bozkatu, Alkatetza behartuta legokeen errauskailuaren aurka azaltzen.

Idazkariak zera erantzuten dio, Alkateak Udaleko organu erabakiorra den neurrian pertsonalitate juridiko propioa duela eta bere erabakien jabe dela. Gehiengoaren erabakiak ezin du behartu. Ondorioz mozioa onartuko litzateke, Osoko bilkurako kideen gehiengoz, baina Alkateak aurka bozkatuko balu pertsonalitate juridiko propioa duen heinean akordioak ezingo luke jaso Alkatea errauskailuaren aurka azaltzen denik.

IZUSTARRI-k mozioaren defentsan zera dio, Aritzetan eraiki behar den errauskailuak 140.000 tona errausteko gaitasuna izango duela. Kontuan izanik Gipuzkoa osoan 3.000 tona zabor sortzen ditugula, errauskailuaren errausteko gaitasuna beharraren oso gainera dago. Ondoriozta dezakegu, zabor kopuruaren bilakaera jeixten saiatu ordez, zabor kopuru handiagoak tratatzeko eraiki nahi dela errauskailu hau.

Europak sortzen den zaborraren % 20-a behartzen du erraustera. Errausten den zabor kopurua murriztea da guretzako helburua eta beharra. Gaur egun sortzen dugun zaborra gutxitzen saiatu behar gara. Helburu hau lortzeko, dauden zenbait teknika erabiliaz.

Sortzen den zaborraren %40-a da soilik birziklatu nahi dena. Portzentaia hauek altuagoak izan behar dira. Egurra ere behar beharrezkoa da birziklatzea.

Errauskailuak energia ere sortuko duela diote. Urtean 30 miloe KW. Uxkeria bat.

PSOE-k entzuten ari diren datuak ez direla zuzenak dio. Sortzen den zabor kopurua askoz ere handiagoa da. Kipuru hori, Zumaiian bakarrik sortzen da.

Errauskailua eta birziklatzea ez dira batera ezinak. Gipuzkoa birziklaketa kopuruan estatuko gainerako probintzien gainera dago. Birziklapena bultzatu nahi da, baina hein handi batean herritarren esku dago.

Beste teknika batzuk biometanizazioa eta konpostajea lirateke. Baina praktikara erateko nahiko zailtasun dute.

Errauskailueri buruzko eskumena Mankomunitateena da, ez Diputazioena. Mankomunitateek eskumena duten neurrian Udalek dute erabakitzeke ahalmena.

Errauskailuak airera botatzen duten kutsadurari buruz esan azken teknologiarekin egingo direla eta errauskailuz errauskailu kontrol eta jarraipen zehatza eskatzen duela.

Guzti honegatik gure botua aurkakoa izango da.

IZUSTARRI-ko bozemailearen hitzetan errauskailuen inguruan azterketa teknikoak egiteko sorturiko batzordean Diputazioaren soldatapeko teknikariak lan egin dute beraz hauen emaitzen fidagarritasuna kolokan gelditzen da.

Errauskailuak sortzen duen zeparekin errepideetako obra lanak egin daitezkeela ere baieztatu da.

Alemanian 30 urte ondorengo esperientziak erakutsi die ez dela material inerte eta ez dute erabiltzen. Hemen 30 urte itxaron behar ote ditugu horretaz jabetzeko ?

Errauskailuak sortuko dituen errauts, eskoria eta zeparen portzentaia kopuruen berri ematen du.

Beraz errauskailua ez da irudikatu nahi zaigun bezain kaltegabeko aukera.

Adibidez Kataluinian, RC-ren ekimenez, PSOE eta EB mota honetako plantak kentzen ari dira.

PSOE-k duen informazioa aldiz, kataluinian Bartzelonako "forum" gune kulturean, bertan kokatu den eco-parkean, errauskailu bat eraikitzen ari direla da.

EB-IU-k dio, kataluinian aipaturiko alderdi horiek duten akordioa errauskailu planten kopurua gutxitzen joatea dela.

IZUSTARRI-k Sueziako adibidea azaltzen du, zera esanaz, coca-cola edukiontzi bakoitzak 39 pezeta balio dituela hutsik, eta entregatzen denean diru hori itzultzen dutela. Era honetan edukiontzi denak birziklatzen dira.

Errauskailurik ez du inork alboan nahi, nahiz eta kutsagarriak ez izan.

Norberaren burua ezkertiar eta abertzalea dela esatea erraza da, baina gero baieztapen hau bete egin behar da eta politika zeinekin egiten den begiratu.

Alkateak zeiharresana bereganatuaz, bera abertzalea eta era berean ez eskuindarra dela dio, eta independentista eta ez autonomista.

Hitz txandaren erabileran E.A-k zera dio, gaiaren ikuspegi formala aztertzen saiatuko direla. Zaborren gaian eskumena duen erakundea Mankomunitatea da. Foru Aldundiak arazoari irtenbide bat emateko sartu du eskua.

Errauskailu plantek onspena 2002ko ekainak 18-an jaso zuten eta bi urte igaro dira eta gaur ari gara erabaki arren ondorioak pairatzen.

Harrigarria bada ere, ez da eztabaidatzen errauskailuarena irtenbiderik hobera den ala ez. Non jarriko den baizik. Udaleri badagokie erabaki hau hartzea, gaiari buruzko ezagutza izan behar dugu. Ez dugu batzordeetan gai honen berririk izan.

Erabakia hartu baino astebete lehenago jakin dugu, bederatzi kokagune posible zeudela. Herri horietako Alkateeri zegokien bozkatzea, eta berea ez zen beste hiru herriri eman behar zien botua. Honek eurobisioa ematen du. Zein legitimitaterekin hartu da erabakia ?

Kokalekua Arroan balitz guretzako kaltegarria litzateke, baina hori ez da kontua, osasunaz hitzegiten ari gara eta gauza serioa da. Lehen eskuko informazioa behar da eta eztabaida.

Diputazioak erabakia kontzientziaz hartu duenik ez dut zalantzan jartze, baina ez dugu eztabaiden berririk izan ezta ere txosten teknikoarik. Txosten tekniko asko daude errauskailuen alde eta beste asko aurka. Alderatu daitezela eskatzen dugu. Eta bakoitzak atera ditzala ondorioak. Bere garaian Kirol Portuarekin gertatu zen bezala.

Diputazioak zer esan duen badakigu, baina Eusko Jaurlaritzak ez du ezer esan. Kontraesana da. Alderdiarengan konfidantza osoa daukat, baina kontzientziaz abstentzioa bozkatu behar dugu.

EAJ-ak gauza asko esan direla eta datu pila bota direla dio. Ez da gai erraza ez da atsegina ere. Arazoa ez da informaziorik ez dagoela, baizik gehiegi dagoela eta bakoitzak nahi duen neurrikoa.

Informazio eza ez dago aitzakiatzat hartzerik, ez posizionatzeko. Erabakia orain bi urtekoa da eta interneten zehar ibili da.

Ados Izustarrik azaldu duen Sueziko adibidearekin. Baina tamalez bide luzea geratzen zaigu horretara iristeko. Gure helburua ez da mundu kontsumista eta depredadore bat sortzea, baina errealitatea hori da.

Gaur egun daukagun arazoa da, kontsumoa igoz doala.

Hala ere, lortu ditugun birziklaketa mailak estatuko gainerako lurraldeetakoak baino altuagoak dira.

Vienan adibidez sortzen duten zaborraren % 40-a birziklatzen da. Errauskailuarekin birziklaketa eta konpostajea bateratzen dituzte.

Mankomunitateko bileretan emandako datua da urtez urte birziklapena igotzen doala baina kopuru horiek altuagoak izan behar dute.

Osasunarentzat kaltegarria den edo ez, ez dakigu. Baina zeini eman behar zaio sinesgarritasun gehiago erakunderi edo erakundez kanpokoeri ?

Erakundeetan gaudenok, saiatzen gara ahal den neurrian, lana ongi egiten.

EPER-i begirada bat eskeintzen badiogu gure ohizko industri iharduerak fundizio eta galbanizatuak betidanik airera bota dituzten hondakinak, duten kutsagarritasuna kontuan izango bagenu, beldurra eta kezkarakin ez ginake biziko.

E.A-ren iritzian informazio eza egon da eta Udalak ez daukagu zergatik interneten informazioaren bila ibili beharrik, gai horretan eskudunak garen neurrian.

EAJ-ak zera erantzuten dio Diputazioak deiturik Miramonen bilera bat izan genuen herritarren partaidetza aktiboa bultzatzeko helburuaz. Eta iharduera hori protokoloa jarraituz gauzatu zen.

Gaineratzen dute Mankomunitateko Lehendakariak bederatzi kokagune posible horiek kaleratu zirenean C.D batean 500 orriko txosten bat pasatu ziela udalei eta udalek zinegotzien esku utzi zutela. Informazioa beraz bazegoen eta aspalditik.

PSOE-k argitzen du bozketa etzela udalerriz udalerriz egin, baizik kokagunez kokagune. Urnieta bakarrik zen lurzoru degradatuaren erizpidea betetzen zuena. Tallerrak ere eratu ziren gaia lantzeko.

IZUSTARRI eta EAJ-ren artean eztabaida sortzen da lehenak egun eta erdi batean 500 orrialdeko txostena ezin dela aztertu dioen bitartean bigarrenak, denbora mordoaren beharra izatea, eta gauza asko jakin behar izatea, erabakia hartzeko, ez dela aitzakia, mantentzen dute. Izustarririk dio informazio bila ez, baina informazioa eman egin behar dela, bestela desinformatzea dela.

Herritar batek hitza eskatu eta ekarpen hauek egiten ditu:

.- Errauskailueri buruz informatzen duten teknikariek borondate politikoaren menpe iharduten dutela. Adibide gisa Debako padurak eta Jaizkibelen gertatua aipatzen ditu.

.- Berziklapenaren alorrean oso gutxi egin dela salatzen du eta agerian gelditzen dela politikoen gaitasun eza.

Berziklatu gabe gelditzen den zabor organiko kopurua oso altua da.

.- PSOE-ren baitan nork hitzegiten duenaren arabera jarrera bat edo beste agertzen da. Elorzak eta Emilianok esaten dutena ez da berdina.

Alkateak zera erantzuten du, teknikariek borondate politikoaren menpe iharduten badute, fede onez egiten dutela.

Berziklapenaren alorrean herritarren sentsibilizazio maila goruntz dijoa, baina denbora behar da. Pertsonalki, nik, betidanik berziklatu dut europako direktibek ziotena ezagutu gabe ere.

Zabor organikoa berziklatu daitekeela ados, baina horretako prestatzen diren edukiontzietan hain kontzientziatuak ez direnek botatzen duten zabor sailkatu gabearekin nahasten da eta ez dago bermarik.

PSOE-tik zera erantzuten da batzuk hutsik egite ez dutenak direla eta beste batzuk aldiz hutsak egiten dituztenak. Odonek ez du esan Donostian errauskailurik ez jartzeko, baizik eta segurtasun neurriak, ahalik eta gehien bermatu daitezela.

Herritarrak hori fede ekintza bat dela dio.

Alkateak berriz Jaizkibelgo errauskailuaren aferera itzuliaz zera dio, berak bertako Alkatearekin eritzi ezberdinak izan ditzakeela, baina Medikuak esan duena esanda ere adierazgarritzat jotzen duela Alkatea errauskailua eraiki behar litzaketen kokagunetik kilometro gutxira bizitzen jarraitzea.

Herritarrak hori politikoak direlako dela dio.

PSOE-koek hipokresia dela esanaz bukatzen dute.

Beste herritar batek hitza eskatu eta zera dio: horrelako arazo larri baten aurrean eman diren aldeko eta aurkako txostenak aztertu behar direla.



Txuriak direnak eta beltzak, minbizia, leuzemia etbr... ekar dezaketela esaten dutenak ere bai. Azken hauek Foru Aldundira luzatu dira, baina ez zaie jaramonik egin. Arnasa taldeak luzatutakoaz ari naiz. Erabakia herriak hartu behar du eta aurkako txostenak alderatu behar dira.

Gobernukideek txosten horren berri ez dutela diote. Baina beste askorenak baietz errauskailuek jaurtitzen dituzten dioxinen kaltegarritasunari buruz justu kontrako iritzia dutenak.

PSOE-koak Arnasak Foru Aldundian txostenik ez dutela aurkeztu baieztatzen du.

Herritarrak ez diola sinesten erantzuten dio.

PSOE-koak herritarrari berak ere ez diola sinesten gaineratzen du.

Beste herritar batek, errauskailua, Prestigek jaurtitako galipota guztiak baino kaltegarriagoa dela dio. Orduan Udalari errazago egin zitzaion aurka azaltzea, kanpotik zetorren kutsadura zelako. Oraingoan zer dela eta ez dira prestigeren kasuan bezala Astiko teknikari, edo beste batzuren txostenak eskatzen.

Alkatea eta Natur taldeko ordezkariaren artean eztabaida sortzen da, hauek salatzen dute Alkateak beraren karira ibiltzeagatik ordainak izango dituztela adierazi ziela eta Alkateak ezetzko borobilarekin erantzuten du zera gaineratuaz, behar bada ez dutela hizkuntza berdina hitzegiten.

Beste eztabaida bat sortzen da herritar eta gobernukideen artean zer bozkatu behar denari buruz. Herritarrek gaia batzordean gehiago sakontzeko eskatzen dute eta Udalari zerbait gehiago egin dezala.

Alkateak beraiek ez dutela errauskailuaren defentsa sutsurik egiten erantzuten du eta bozkatzeko dena mozioa dela. Erabakia hartuta dago, Udalak ez dauka boturik, errauskailuari ez esateko ezta ere lekuz aldatzeko.

Bozketa eginik bertaraturiko hamahiru zinegotzietatik aurkako zazpi botuz ( bost EAJ-renak, eta bi PSOE-renak) eta lau aldeko botuz ( hiru IZUSTARRI-renak eta bat EB.IU-rena ) eta bi abstentzio EA-renak, ERABAKI DA:

IZUSTARRI eta EB-IU-k aurkeztutako HIRI-HONDAKIN  
SOLIDOeri buruzko mozioa EZ ONARTZEA.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate-Lehendakari  
andreak bilera amaitutzat ematen du, gaueko hamar terdiak direnean, eta nik  
Idazkariak fede ematen dut.

ALKATEAK O.E

IDAZKARIAK